

	KONFIANTZA LORTZEKO jolasak	
	15'	Itsuaurrekoa

1. AZALPENA

Begiak estalita dituen lagun bat gidatzeko jolasa.

2. HELBURUAK

Lankidetzarako beharrezkoa den konfiantza lortzea.

3. PARTE-HARTZAILEAK

6 urtetik gorako kideen taldea, ikastaldea...

4. MATERIALA

Zapiak edo bendak, begiak estaltzeko.

5. JARRAIBIDEAK

- Isiltasuna behar da ariketa egiteko.
- Ariketa ez da oztopo-lasterketa ikusten ez duenarentzat, esperientzia bat izateko aukera baizik.
- Erabil dezagun irudimena; adibidez, soinu desberdinak entzunarazi, tarte batez bakarrik utzi eta ibilbidean zehar zenbait objektu ukitzeko eska diezaiokegu.
- Bakoitzak bere baitako sentimenduei erreparatu beharoko die, baita bikotekidearenei ere, hautematen baditu behintzat.



6. GARAPENA

Parte-hartzaileen erdiak begiak estalita ditu. Bikoteka jarriko dira (itsu bat eta gidari bat). Gidariak aukeratu behar dituzte itsuak, eta itsuek ez dute jakin

behar zein den beren gidaria. 10 minutuan zehar, itsuaurrekoek itsuak gidatuko dituzte. Ondoren, zereginak aldatuko dituzte. Lehen itsuarena egiten dutenak itsuaurrekoak izango dira eta itsua aukeratuko dute.

7. EBALUAZIOA

Ariketan zehar bizi izandako sentimenduak eta haien garrantzia ebaluatuko dira. Konfiantza eta mesfidantza eguneroko bizitzan nola gauzatzen den aztertuko da. Konfiantza/ingurua eta konfiantza/lankidetzaren harremanak.